CATÁLOGO DE EXPOSICIÓN

HERIOTZA ETA ERRITUALA ARABAN
MUERTE Y RITUAL EN ÁLAVA

Sancho el Sabio
FUNDACIÓN Vital FUNDAZIOA

CEISS
CENTRO D ESTUDIOS D LA IMAGEN SANS SOLEIL

Obra editada bajo licencia Creative Commons 3.0:
Reconocimiento - No Comercial - Sin Obra Derivada (by-nc-nd)

© de los autores, Ander Gondra Aguirre y Gorka López de Munain, 2016
© de la edición, Fundación Sancho el Sabio, Vitoria-Gasteiz, 2016

Idea y comisariado: Ander Gondra Aguirre y Gorka López de Munain.
Diseño: Mikel Escalera y Sandra Rodríguez.

WWW.CEISS.ES
Contacto: info@sanssoleil.es

MUERTE Y RITUAL EN ÁLAVA
HERIOTZA ETA ERRITUALA ARABAN

ANDER GONDRA Y GORKA LÓPEZ DE MUNAIN

MUERTE Y RITUAL EN ÁLAVA
HERIOTZA ETA ERRITUALA ARABAN

ANDER GONDRA Y GORKA LÓPEZ DE MUNAIN

Catálogo de la exposición celebrada del 27
de octubre al 25 de noviembre de 2016 en la
Fundación Sancho el Sabio de Vitoria-Gasteiz

VITORIA-GASTEIZ • 2016

PRESENTACIÓN

AURKEZPENA

La preocupación por la muerte ha sido siempre una constante en todas las civilizaciones, culturas y sociedades, marcando el ritmo de los principales acontecimientos de la vida. En nuestro presente, la muerte ha adquirido un papel complejo que se debate entre la ocultación y la voluntad de retrasar o modificar su presencia, transformando muchas de las antiguas tradiciones en actos de naturaleza muy diversa. En esta exposición, echamos la vista atrás para conocer de cerca la manera en la que nuestros antepasados gestionaron la muerte, cómo se conmemoraba a los difuntos o las formas de memoria conectadas con el luto y el duelo, a fin de reflexionar sobre la transformación de estos ritos y creencias en nuestros días.

La muestra pretende, además, promover una mirada más abierta y compleja sobre un tema a menudo evitado o postergado. Valiéndonos de una amplia selección de fotografías procedentes de diversos archivos de la ciudad –entre las que se incluyen imágenes de destacados fotógrafos como Gerardo

López de Guereñu, Ceferino Yanguas o Alberto Schommer Koch– y de los amplísimos fondos documentales de la Fundación Sancho el Sabio, proponemos un escenario privilegiado para festejar la vida mientras pensamos con la muerte.

Por último, ¿qué mejor espacio para plantear una exposición de estas características que éste? Un centro de documentación sobre la cultura vasca enclavado en un edificio que, hasta hace menos de dos décadas, cumplía la función de cementerio de la comunidad de las Carmelitas Descalzas. La historia, caprichosa, trae de vuelta a los muertos.

Heriotza kezka-iturri izan da beti zibilizazio, kultura eta gizarte guztietan, eta bizitzaren gertakari garrantzitsuenen erritmoa markatu izan du. Geure orainaldian, heriotzak eginkizun konplexua betetzen du: edo ezkutatzera jotzen dugu, edo heriotzaren presentzia atzeratzeko edo aldatzeko borondatea agertzen dugu; horrela, bada, antzinako ohituretako asko mota guztietako ekintza bihurtu dira. Erakusketa honetan, atzera begiratu dugu geure arbasoek heriotza nola kudeatzen zuten ikusteko, hildakoak nola gogoratzen zituzten edo lutoarekin eta doluarekin lotutako memoria-formak zeintzuk diren ikusteko, betiere erritu eta sinesmen horiek gaur egun nola aldatu diren hausnartzeko asmoz.

Erakusketaren bitartez, askotan saihestu edo geroratu egiten dugun gai honen gaineko ikuspegi zabalagoa eta konplexuagoa sustatu nahi dugu. Horretarako, argazki ugari bildu ditugu hiriko hainbat artxibotatik eta Sancho el Sabio Fundazioaren dokumentu-funts aberatsetatik; artxiboetan argazkilari ospetsuen irudiak ere aurkitu ditugu: Gerardo López de Guereñu, Ceferino Yanguas edo Alberto Schommer Koch, eta horiekin guztiekin, bizitza ospatzeko ingurune pribilegiatua proposatzen dizuegu, heriotzarekin pentsatzen dugun bitartean.

Bukatzeko, bururatzen al zaizue hau baino toki egokiagorik horrelako erakusketa bat jartzeko? Izan ere, euskal kulturari buruzko dokumentazio-zentro hau biltzen duen eraikina karmeldar oinutsen komunitatearen hilerri izan baitzen duela ia hogei urte arte. Historiaren gorabeherak... hildakoak berriro ere geure artean

ESPACIOS DE LA MUERTE: LOS CEMENTERIOS

HERIOTZAREN ESPAZIOAK: HILERRIAK

A comienzos del siglo XIX, y cumpliendo con las medidas ordenadas por la Real Cédula dictada por Carlos III en 1787 –en la que se restringía el derecho de inhumación en los templos–, las instituciones vitorianas comenzaron a plantearse la necesidad de construir un cementerio. No fue fácil superar la resistencia de los feligreses a enterrarse fuera de las iglesias o sus cercanías, pero la urgencia por considerar las condiciones higiénicas y de salubridad hizo que finalmente los ayuntamientos de todo el país accedieran a acatar la normativa y florecieran los planos de construcción de camposantos en todo el territorio nacional.

El lugar escogido en el caso de Vitoria-Gasteiz, a pesar de resultar más húmedo de lo recomendado, fue Santa Isabel, donde existía una primitiva ermita datada en torno al siglo XIII que posteriormente sufrió una gran transformación a finales del XVII, y a cuya santa se agradecía el haber librado a la ciudad del azote de la peste años atrás. El 18 de marzo de 1808 el cementerio fue finalmente bendecido y a lo largo de las siguientes décadas creció de manera relativamente azarosa, siendo inicialmente cuestionado por su mal estado.

Con el paso de los años, los vitorianos adoptaron definitivamente el emplazamiento y la belleza de buena parte de las capillas y panteones hizo que se convirtiera en uno de los lugares más queridos de la ciudad, hasta el punto de considerarse en la actualidad uno de los cementerios con mayor atractivo turístico del Estado.

XIX. mendearen hasieran, eta Carlos III.ak 1787. urtean agindutako Errege Zedulan –elizetan lurperatzeko eskubidea murriztu zuen– xedatu ziren neurriak betez, Gasteizko erakundeak hilerri bat eraiki behar ote zuten aztertzen hasi ziren. Zaila izan zen eliztarrei elizetatik kanpo edo elizainguruetatik kanpo lurperatu behar zituztela sinestaraztea, baina higienearekin eta osasungarritasunarekin lotutako baldintzak betetzea premiazkoa zenez, azkenean, udal guztiek onartu zuten araudia eta hilerriak eraikitzeko planoak ugaritzen hasi ziren nazio osoan.

Gasteizen kasuan, Santa Isabel ingurunea aukeratu zuten hilerria egiteko, nahiz eta gomendatutakoa baino hezetasun handiagoa zuen; izan ere, XIII. mende inguruko ermita bat zegoen bertan baina XVII. mendearen amaieran asko aldatu zen. Herritarren ustez, Santa Isabeli esker hiria izurriaz libratu zen zenbait urte lehenago. 1808ko martxoaren 18an, hilerria bedeinkatu egin zuten eta, hurrengo hamarkadetan, nolanahi hazi zen; horregatik, hilerria egokia ote zen aztertzen hasi ziren, egoera txarrean zegoelako. Urteak joan, urteak etorri, gasteiztarrek onartu zuten azkenean hilerri hori, eta kapera eta panteoi gehienak hain ederrak izaki, hiriko txoko kuttunetako bat bihurtu zen; gaur egun, turistentzat Estatu osoko hilerri erakargarrienetako bat da.

Arqué - Cementerio de Santa Isabel (1958) [AMVG ARQ-0357_11(5)]
Santa Isabelgo hilerria (1958)

Arqué - Rosario en el cementerio de Santa Isabel el día de Todos los Santos (1963) [AMVG ARQ-2073_11(2)]
Domu Santu egunean Santa Isabelgo hilerrian arrosarioa errezatzen (1963)

Gerardo López de Guereñu – Cementerio de Santa Isabel [ATHA-DAF-GUE-19611]
Santa Isabelgo hilerria

Gerardo López de Guereñu - Cruz sobre la fachada del cementerio de Gamarra Mayor [ATHA-DAF-GUE-12566]
Gamarra Nagusiko hilerriko fatxadaren gainaldeko gurutzea

Gerardo López de Guereñu – Cementerio de Leorza
[ATHA-DAF-GUE-2085]
Leortzako hilerria

HERIOTZAREN GESTOREAK: MISERIKORDIAKO ANAIA FOSSOREEN KONGREGAZIOA

GESTORES DE LA MUERTE: CONGREGACIÓN DE LOS HERMANOS FOSSORES DE LA MISERICORDIA

El 1 de mayo de 1963 llegaron al cementerio de Santa Isabel de Vitoria-Gasteiz los primeros miembros de la Congregación de los Hermanos Fossores de la Misericordia, dispuestos a encargarse a partir de ese momento de la séptima obra de misericordia corporal y espiritual: enterrar a los muertos y rogar a Dios por los vivos y los difuntos. Esta orden, que toma su nombre de los llamados fossores (excavadores) de las primitivas catacumbas –aquéllos que construían las complejas galerías en las que se ubicaban las tumbas, guiando a familiares y peregrinos, y cuidando y decorando las criptas y cubículos–, nace en Guadix en el año 1952 por iniciativa del religioso granadino Fray José María de Jesús Crucificado y se expandió tempranamente por varias ciudades, aunque en la actualidad tan sólo perviven en los cementerios de Logroño y de la casa madre en Guadix. En Vitoria-Gasteiz, su labor se prolongó hasta el año 1974, en el que abandonaron definitivamente la ciudad, dejando la labor en manos de los sepultureros municipales.

1963ko maiatzaren 1ean, Miserikordiako Anaia Fossoreen Kongregazioko kideak iritsi ziren Gasteizko Santa Isabel hilerrira, eta une horretatik aurrera, gorpuaren eta espirituaren miserikordiako zazpigarren obraren ardura hartu zuten beren gain: hildakoak lurperatzea eta Jainkoari bizien eta hildakoen alde egiteko erregutzea. Ordena horren izena antzinako katakonbetako fossores edo induskatzaileetatik dator; fossoreek hilobiak kokatzeko galeria konplexuak egiten zituzten, eta hildakoen senitarteko eta erromesen gidari izateaz gain, kriptak eta gelak zaintzen eta apaintzen zituzten. Guadix herrian sortu zen ordena 1952. urtean, Granadako Fray José María de Jesús Crucificado lekaidearen ekimenez, eta berehala zabaldu zen hainbat hiritara, baina gaur egun, Logroñoko eta sorterriko Guadixeko hilerrietan baino ez diraute. Gasteizen, 1974. urtera bitarte jardun zuten; urte hartan behin betiko alde egin zuten hiritik, udal-ehorzleen esku utzita euren lana.

Tres Fossores presencian el paso de una carrera ciclista a la altura de la calle Portal de Arriaga (1964) [AMVG ARQ-238_03(6)]
Hiru fossorek Arriagako Atea kaleko ingurutik pasatzen den txirrindulari lasterketa ikusten dute

Arqué – Hermanos Fossores en el cementerio de Santa Isabel (1964) [AMVG ARQ-2352_08(10)]
Anai Fossoreak Santa Isabelgo hilerrian (1954)

Arqué – Hermanos Fossores en el cementerio de Santa Isabel (1963) [AMVG ARQ-1962_11(1)]
Anai Fossoreak Santa Isabelgo hilerrian (1963)

RITUALES DE LA MUERTE (DUELO, LUTO Y FUNERALES)

HERIOTZAREN ERRITUALAK (DUELU, DOLU ETA HILETAK)

Antiguamente, eran muchas las tradiciones vinculadas a los últimos momentos de vida, a los augurios y agonías, pero muchas más si cabe las que rodeaban al cuerpo una vez fallecido: el velatorio, la esquela, el responso, los toques de campana, el funeral, el cortejo fúnebre, el duelo y, por último, el entierro propiamente dicho.

Todo este ceremonial fue variando con el tiempo, adaptándose a la sensibilidad y a las normativas del momento. Por ejemplo, la tradicional "cabezada", en la que familiares y amigos subían hasta el domicilio donde se encontraba el finado durante toda la noche a presentarle sus respetos, comenzó a ser criticada durante la década de los años veinte del siglo pasado, ya que las aglomeraciones en las viviendas eran excesivas y el acompañamiento en comitiva a la mañana siguiente paralizaba en cierto modo la ciudad. Desde comienzos del año 1886, el cortejo pasó a realizarse en carruaje fúnebre, pero fueron múltiples las reservas expresadas por el Obispo, que reiteradamente mostró su disconformidad y ordenó, en un primer momento, que la cruz no acompañase a los cadáveres conducidos por bestias al cementerio.

Con el paso de los años las asperezas entre las autoridades civiles y eclesiásticas se limaron y los carros tirados por caballos se convirtieron en norma: el negro para los adultos y el blanco para los niños. También se distinguían varios tipos de carruajes según la categoría del sepelio: cuatro caballos engalanados con cochero y lacayo en los de primera, únicamente dos caballos y un cochero en los de segunda, y cada vez menos detalles y coberturas en los de tercera y cuarta categorías.

Por último, es interesante recordar los caminos seguidos por las conducciones en Vitoria-Gasteiz. Éstos variaban en función de la iglesia en la que se celebraba el funeral: los procedentes de San Pedro y San Miguel terminaban habitualmente en el Campo de los Sogueros (esquina de Aldave con Siervas de Jesús) o al final de la calle San Ignacio los de San Cristóbal y San Vicente. A partir de allí, la familia continuaba a solas hasta el cementerio de Santa Isabel.

Detalle de una conducción en las pinturas de la iglesia de Alaiza (c. XIII)
Alaizako elizako margoetan ikusitako eramate baten xehetasuna (g.g.b. XIII. mendea)

Antzina, bizitzaren azken uneekin, augurioekin eta agoniekin lotutako tradizio asko zeuden, baina are gehiago ziren hil ondoren hilotzarekin lotutakoak: hil-beila, eskela, errespontsua, ezkil-jotzeak, hileta, segizioa, dolua eta, azkenik, lurperatzea bera.

Denboraren poderioz, zeremonia horiek guztiak aldatu egin ziren, unean uneko sentsibilitatearen eta araudien arabera. Adibidez, lehen, hildakoa zegoen etxeraino joaten ziren senitarteko eta lagunak, gaua bertan igaro eta eskumuinak emateko, baina joan zen mendeko hogeiko hamarkadan, ohitura hori kritikatzen hasi ziren, etxeetan jende gehiegi pilatzen zelako eta hurrengo goizean denek batera hildakoari lagun egiten ziotenean, hiria neurri batean geldiarazi egiten zutelako. 1886. urtean, segizioa hileta-gurdiz egiten hasi zen baina apezpikuak eragozpen ugari jarri zituen; izan ere, maiz agertu zuen ez zegoela horrekin ados, eta hasiera batean, hilerrira animaliek tiratuta eramandako gorpuekin gurutzerik ez joatea agindu zuen. Urteak joan, urteak etorri, agintari zibilen eta elizako agintarien arteko koskak berdindu egin ziren, eta zalgurdiak ohiko bihurtu ziren: beltzak helduentzat, eta zuriak haurrentzat. Ehorzketaren kategoriaren arabera ere zalgurdi mota bat ala bestea izaten zen: lehenengo kategoriako ehorzketetan, apainduta lau zaldi izaten ziren, zaldizain, lekaio eta guzti; bigarren kategoriakoetan, bi zaldi baino ez, eta zaldizain bakarra, eta hirugarren eta laugarren kategoriakoetan, gero eta detaile eta estaldura gutxiago.

Azkenik, Gasteizen zer bide egiten zuten gogoratzea interesgarria dela iruditzen zaigu. Hileta zein elizan izango zen arabera, bidea bat ala beste izango zen: San Pedro eta San Migeletik zetozen segizioak Campo de los Sogueros izeneko eremuan (Aldabe eta Jesusen Zerbitzarien kaleen arteko izkina) amaitzen ziren, edo San Cristobal eta San

Vicentetik zetozenak, aldiz, San Inazio kalearen bukaeran. Puntu horietatik aurrera, senitartekoek bakarrik jarraitzen zuten Santa Isabel hilerriraino.



Carruajes de distintas categorías pertenecientes a la funeraria Lauzurica [AMVG R-3095_01, R-3095_02, R-3095_03, R-3095_04]
Lauzurika ehortetxeko maila desberdinetako zalgurdiak

Enrique Guinea – Paso por el Portal de Arriaga de la conducción del cadáver del General de División y Gobernador Civil de la provincia de Vizcaya, Eduardo Cañedo-Argüelles y Meabe. 24 de marzo de 1915 [AMVG GUI-III-050_05]
Eduardo Cañedo-Argüelles y Meabe, Dibisioko Jenerala eta Bizkaiko Gobernadore Zibilaren gorpu-lorra Arriagako Atetik pasatzean. 1915eko martxoaren 24a.

Arqué - Celebración religiosa con una enferma (1961) [AMVG ARQ-1690_16(1)]
Elizkizunak gaixo batekin (1961)



Ceferino Yanguas – Retrato post-mortem del Hijo de García [AMVG YAN-13x18-082_21]
Garciaren semearen post mortem erretratua

Ceferino Yanguas – Entierro del Hijo de García a la altura de la calle Siervas de Jesús [AMVG YAN-13x18-082_22]
Garciaren semearen gorpu-lorra Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kale parean.

Ceferino Yanguas – Entierro del Hijo de García a la altura del Campo de los Sogueros [AMVG YAN-13x18-082_25]
Garciaren semearen gorpu-lorra Campo de los Sogueros gisa ezagutzen zenaren parean.

FOTOGRAFÍAS POST-MORTEM

POSTMORTEM ARGAZKIGINTZA

1. EL ROSTRO Y LA MUERTE EN LA HISTORIA

La historia de las imágenes nos muestra que el rostro es el último recuerdo que, a lo largo del tiempo, hemos buscado perpetuar del difunto. Los retratos en general, desde las máscaras del Neolítico hasta las fotografías digitales, siempre han buscado capturar algo de la presencia del individuo representado. Por ello, cuando se ha querido obtener un recuerdo de una persona fallecida, el rostro ha reclamado su protagonismo, desde las calaveras modeladas con arcilla de Jericó (9000 a.C.), pasando por las máscaras mortuorias, hasta llegar a las fotografías post-mortem. Con la invención de la fotografía en la primera mitad del siglo XIX, esta obsesión por capturar un último testimonio de un ser querido se convirtió en toda una moda que se extendería a lo largo y ancho del planeta, dejándonos unas estampas que hoy en día nos pueden resultar macabras.

Sin embargo, más allá de estas consideraciones, lo cierto es que la fotografía post-mortem fue un recurso sumamente explotado (muchos fotógrafos, de hecho, se especializaron en

esta práctica por su rentabilidad) que satisfacía las necesidades de los familiares. Especialmente en los contextos de muerte prematura de los niños, estas imágenes cumplían una función esencial en la gestión y desarrollo del duelo. Prueba de ello es que todavía hoy día se realizan fotografías post-mortem infantiles (sobre todo en los casos de muertes muy tempranas) con el propósito de que los padres puedan sobrellevar de manera más eficaz el dolor de la ausencia. La fotografía post-mortem gozó de tanta fama y desarrollo que fue adquiriendo, con el paso del tiempo, diferentes tipologías: "el último sueño", "fotografía de ataúdes", "fotografía familiar".

1. AURPEGIA ETA HERIOTZA HISTORIAN BARRENA

Irudien historiari erreparatuta zera ikusi dugu, hildakoarengandik iraunarazi nahi izan dugun azken oroitzapena aurpegia izan dela. Erretratuen bidez, oro har –Neolitoko maskarekin hasi eta egungo argazki digitalekin amaitu–, irudikatutako norbanakoaren presentziatik zerbait harrapatu nahi izan dugu beti. Horregatik, hildakoaren oroigarri bat lortu nahi izan dugunean, aurpegia izan da protagonista nagusia; hala nola, Jerikon buztinez egindako garezurrak (K.a. 9000), edo hil-maskarak, edo hil ondoko argazkiak. XIX. mendearen lehenengo erdian argazkigintza sortu zenetik, maite dugunaren azken lekukotza harrapatzeko obsesio hori moda bihurtu zen planeta osoan, eta gaur egun makabrotzat jo ditzakegun irudiak utzi zizkiguten.

Alabaina, gogoetak gogoeta, hil ondoko argazkiak asko baliatu zituzten (egia esan, argazkilari asko espezializatu ere egin ziren, oso errentagarria baitzen), senitartekoen premiak betetzen baitzituen. Batik bat, haurrak behar baino lehenago hiltzen zirenean, irudi horiek funtsezkoak izaten ziren dolua

kudeatzeko eta garatzeko. Horren adierazgarri, gaur egun oraindik ere egiten dira haurren hil ondoko argazkiak (batez ere oso-oso txikitan hiltzen direnean), gurasoek absentziaren oinazea modu eraginkorragoan jasan ahal izateko. Hil ondoko argazkigintza izugarri hedatu eta garatu zen, eta denboraren poderioz, hainbat tipologia ere sortu ziren: "azken loaldia", "hilkutxen argazkiak", "familia-argazkiak".

2. FOTOGRAFÍA POST-MORTEM EN ÁLAVA

A pesar de ser un hecho muy poco conocido, restringido a un ámbito familiar y privado, y a pesar también de que muchos de estos retratos no han pervivido hasta nuestros días tras ser despreciados por las miradas del siglo XX, contamos en Álava con algunos ejemplos que demuestran que la práctica de la fotografía post-mortem se desarrolló también en la provincia. Entre los retratos infantiles, los hay formalmente laicos –sin ninguna simbología– y cercanos a la iconografía del sueño eterno (como el retratado por Ceferino Yanguas), y otros adaptados a las particularidades de los entierros religiosos de los párvulos, como delatan la presencia del color blanco y la corona de flores sobre sus cabezas, en "señal de la integridad y virginidad de sus cuerpos". También solían realizarse retratos post-mortem de las religiosas, que acostumbraban a enterrarse con el hábito correspondiente y acompañadas de flores o algún otro elemento simbólico que remitiese, igualmente, a su pureza y castidad.

En otros casos, la fotografía de difuntos funcionaba claramente como recordatorio, haciendo partícipes del duelo a los parientes que se encontraban lejos. Hablamos de un período en el que la fotografía aún no era de uso corriente, por lo que esta instantánea quizás significaba la última y

única oportunidad de pasar a formar parte del álbum familiar, sobre el que en buena medida se asentaba la memoria.

2. POSTMORTEM ARGAZKIGINTZA ARABAN

Ez dira oso ezagunak izan, familiaren eremura eta eremu pribatura mugatuta egon dira, eta XX. mendeko ikuspegitik gaitzespenez begiratu ostean mota horretako argazki asko desagertu egin diren arren, baditugu Araban hil ondoko argazkien zenbait ale, horrelako argazkiak probintzia honetan ere egin ziren adierazgarri. Haurren erretratuei dagokienez, formalki laikoak –inolako sinbologiarik gabe– aurki ditzakegu, betiko loaldiaren ikonografiatik hurbil daudenak (Ceferino Yanguasena, esaterako), eta beste kasu batzuetan, haurren hileta erlijiosoen ezaugarrietara egokitutakoak aurki daitezke; esate baterako, kolore zuria agertzea eta buru gainean lorekoroa izatea, "haurren gorpuaren osotasun eta birjintasunaren adierazgarri". Lekaimeen hil ondoko erretratuak ere egiten ziren; lekaimeak abituarekin lurperatzen ziren, lorez inguratuta edo purutasuna eta kastitatea adierazten duen beste edozein elementu sinbolikorekin.

Beste zenbait kasutan, hildakoei egindako argazkiak oroigarri izaten ziren, urrun zeuden senideei doluan parte hartzeko aukera emateko. Garai hartan, argazkiak egitea ez zen ohiko kontua izaten; beraz, agian, argazki hori izan zitekeen familiako argazki-albumean sartzeko aukera –azkena eta bakarra–, album hori baitzen, hein handi batean, oroitzapenen oinarria.



Ceferino Yanguas – Retrato post-mortem
[AMVG YAN-10x15-66_05]
Post-mortem erretratua

Arqué – Retrato post-mortem (1961) [AMVG ARQ-1510_01(2)]
Post-mortem erretratua (1961)

Retrato postmortem de Soledad Beltrán de Salazar (1924-1925) [ATHA-DAF-VAR-PP-003-323-1]
Soledad Beltrán de Salazarren post-mortem erretratua (1924-1925)

Retrato post-mortem (Galicia, 1967) [Archivo familiar]
Post-mortem erretratua (Galizia, 1967) [Artxibo familiarra]

Enrique Guinea – Retrato post-mortem de Felicia Olave (1912) [AMVG GUI-VII-050_12]
Felicia Olaveren post-mortem erretratua (1912)

Arqué - Capilla ardiente del jugador del Deportivo Alavés Antonio Sarasola, fallecido a consecuencia de un accidente de trafico (1969) [AMVG ARQ-3093_08(1)]
Antonio Sarasola auto-istripuz hildako Deportivo Alaveseko jokalariaren hil-kapera (1969)

RESTOS Y RELIQUIAS

HONDAKINAK ETA ERLIKIAK

1. CUERPOS INCORRUPTOS

Desde época medieval se conformó necesariamente una compleja teorización del concepto de presencia en torno a las reliquias. Estos restos o despojos (en la significación etimológica del latín reliquiae) "presentificaban" lo santo, garantizando elementos claves del culto, como son la permanencia y la memoria, a través de un objeto material y sensible. De este modo, el resto mortal no es solamente un recuerdo de su existencia, sino un dispositivo a través del cual el santo continúa actuando en favor de sus fieles. La virtud seguía emanando de su cuerpo, de su tumba, de su cercanía. Sin embargo, a la par que las propias reliquias, es igualmente relevante la manera en la que éstas eran expuestas y conservadas en los relicarios. Éstos se constituyen, mediante un acto de encuadre, como elementos fundamentales a la hora de evaluar el proceso de "invención" o puesta en valor de todos estos despojos. El relicario no es algo derivado de la reliquia, sino coincidente: la define, la pone en valor; enmarcándola la hace digna de ser



Cráneo-relicario de San Vitor de Gauna
San Vitor de Gaunaren gare-zur-erlikia

venerada. En definitiva, en cierto sentido, el acto de selección y posterior "enmarque" hace la reliquia y no al revés.

En el caso alavés, contamos con varias reliquias interesantes esparcidas por distintos templos de la provincia. Por señalar algunos ejemplos, en el Museo Diocesano de Arte Sacro se conserva un fantástico grupo de cinco bustos-relicario de las once mil vírgenes, datados a principios del siglo XVI, y que originalmente estaban ubicados en la iglesia de San Vicente de Vitoria-Gasteiz. Además, recientemente, el servicio de restauración de la Diputación Foral de Álava ha sometido a tratamiento un mueble relicario procedente de Mártioda, conformado por varios cráneos atribuidos a la legión tebana. Y también, en Berrosteguieta, se veneró durante siglos una espina de la corona de Cristo que, durante la Batalla de Vitoria, en junio de 1813, estuvo a punto de perderse, tal y como dejó escrito en una sentida crónica el párroco de la localidad a finales de ese mismo año:

> Deseando preservarla de manos sacrílegas, la saqué de la Iglesia. Pero aún no salí de su recinto cuando veo repentinamente otra multitud que se dirigía a nosotros. En tan apurado conflicto no hallé otro recurso que introducirme disimuladamente en la puerta de la torre, echar en el suelo la Santa Reliquia y cubrirla con el escombro y polvo y salirme con el mismo disimulo. […] Pasada esta borrasca, cogí la Reliquia y en el camino que va a Esquivel la oculté bajo un pequeño y denso matorral y, destituidos de todo consuelo, nos retiramos al monte.

Bustos-relicario de las once mil vírgenes (Museo Diocesano de Arte Sacro)
Hamaika Mila Birjinen erlikitegi bustoak (Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa)

1. USTELDU GABEKO GORPUAK

Erdi Arotik, presentziaren kontzeptuaren teorizazio konplexua eratu zen erlikien gainean. Gorpuzki edo hondakin horiek (latinezko reliquiae hitzaren esanahi etimologikoari eutsita) santutasuna "presentifikatzen" zuten eta, hartara, gurtzaren funtsezko elementuak bermatzen zituzten, hala nola, iraunkortasuna eta memoria, objektu material eta sentigarri baten bitartez. Hori horrela dela, gorpuzkia ez da hildakoaren oroigarria bakarrik, baizik eta santuak sinestunen aldeko ekintzak egiten jarraitzeko gailua. Bertutea zerion oraindik gorpuari, hilobiari, gertutasunari. Alabaina, erlikiak berak garrantzitsuak baziren, erlikia horiek ikusgai jartzeko eta gordetzeko erlikia-ontziak ere oso garrantzitsuak ziren. Erlikia-ontziak funtsezko elementuak dira hondakin horiek "asmatzeko" edo hondakinei balioa

emateko prozesua ebaluatzeko garaian, enkoadratzearen bitartez. Erlikia-ontzia ez da erlikiak eragindako zerbait, erlikiarekin bat datorren zerbait baizik: erlikia bera zehazten du, balioa ematen dio; markoan kokatuta, gurtzeko moduko bihurtzen du. Azken buruan, eta hein batean, hautatu eta gerora "markoan kokatzeko" ekintza da erlikia egiten duena, eta ez alderantziz.

Arabako kasuan, erlikia interesgarriak ditugu probintziako hainbat elizatan sakabanatuta. Adibide batzuk adieraztekotan, Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoan, hasieran Gasteizko San Bizente elizan zeuden hamaika mila birjinen bost erlikia-bustoz osatutako sorta zoragarri bat dago, XVI. mende hasierakoak. Horretaz gain, berriki, Arabako Foru Aldundiaren zaharberritze-zerbitzuak Martiodatik zetorren erlikia-altzari bati egin dio tratamendua; ustez Tebaseko legionarioen garezurrak dira. Eta Berroztegietan, Kristoaren koroaren arantza bat gurtu zen mende askotan, baina Gasteizko Guduan –1813ko ekainean– galzorian egon zen; herriko apaizak, erabat hunkituta, honela jaso zuen idatzita gertakaria, urte haren amaieran:

> Sakrilegoen eskuetatik babesteko asmoz, Elizatik atera nuen. Baina oraindik atera gabe nengoelarik guregana zetorren beste jende multzo bat ikusi nuen bat-batean. Gatazka larri hartan ez nuen beste irtenbiderik ikusi: disimulu handiz, dorreko atetik sartu nintzen eta Erlikia Santua lurrera bota nuen, hondakinekin eta hautsarekin estaltzeko; gero, berriro ere disimulu handiz, atera egin nintzen. […] Arriskualdia igaro zenean, Erlikia hartu eta Eskibelera doan bidean sastraka txiki eta trinko baten azpian ezkutatu nuen eta inolako kontsolamendurik gabe, mendira jo genuen.



Gerardo López de Guereñu – Relicario de San Fausto [ATHA-DAF-GUE-811]
San Faustoren erlikia-ontzia

Alberto Schommer Koch – Relicario de Berrosteguieta en el que se conserva la Santa Espina (1950) [ATHA-DAF-SCH-33765]
Arantza Santua gordetzen den Berrostegietako erlikia-ontzia

2. "MOMIAS ALAVESAS": SAN FAUSTO Y SAN VICENTE

Destacan especialmente en la provincia dos sorprendentes reliquias: los cuerpos de San Fausto y San Vicente. El primero, conservado en un nicho con cubierta de cristal en la iglesia de Bujanda, se encuentra en bastante mal estado y le faltan múltiples piezas del esqueleto tras haber sido extraídas durante siglos para su colocación en relicarios. La devoción a este santo ha sido constante a lo largo de los siglos, como acredita la gran cantidad de pueblos montañeses que realizaban rogativas a su figura, los exvotos conservados en el templo, o las romerías y peregrinaciones, destacando su papel como abogado de los matrimonios estériles. Se cuenta que incluso Carlos IV y María Luisa de Parma solicitaron uno de los velos de seda que cubrían el cuerpo, para obtener así sucesión para la familia real. Precisamente el día de la festividad del santo, la reina dio a luz a un hijo, que llegó a ser rey con el nombre de Fernando VII.

El caso de San Vicente es ligeramente diferente, ya que se trata de un cuerpo reconstruido. Para armar este tipo de figuras, se utilizaba un alambre que atravesaba los huesos y posteriormente se colocaba una red metálica que aportaba el volumen necesario para darle forma al conjunto. San Vicente aparece reclinado sobre su lado derecho y está ataviado con elegantes vestimentas al estilo romano. Para impedir la visión directa del hueso, viste guantes, sandalias en los pies y un velo cubre su rostro. Este cuerpo fue traído inicialmente desde Roma a la iglesia de Nuvilla a finales del siglo XVIII por mediación de Tomás Ortiz Landazuri, Caballero de Santiago y vecino de la localidad. Durante la Guerra de Independencia, las tropas francesas se acantonaron en dicha iglesia en el año 1808, momento en el que se perdió el documento que certificaba la autenticidad y procedencia del

cuerpo. A principios del siglo XXI, cuando el templo quedó en estado de abandono, el santo se trasladó definitivamente a su actual emplazamiento en la iglesia de Anúcita.

2. "MOMIA ARABARRAK": SAN FAUSTO ETA SAN BIZENTE

Gure probintzian bi erlikia harrigarri nabarmentzen dira: San Faustoren eta San Bizenteren gorpuak. Lehenengoa Bujandako elizan dago, kristalezko estalkia duen nitxo batean; nahiko egoera txarrean dago eta eskeletoko pieza asko falta ditu, mendez mende kendu dizkiotelako erlikia-ontzietan gordetzeko. Santu honenganako mirespenak ez du etenik izan mendez mende; izan ere, mendialdeko herri askotan errogatibak egiten zizkioten, elizan botozko opari asko gordetzen dira, eta erromeria eta erromesaldiak ere ugariak izan dira. Ezkontide antzuen alde lan handia egiten omen zuen. Diotenez, Carlos IV.ak eta Parmako María Luisak ere gorpua estaltzen zuten zetazko beloetako bat eskatu zuten, errege-familiarentzako ondorengoak lortzeko. Hain justu santuaren egunean, erregina semeaz erditu zen eta seme hori errege izatera iritsi zen: Fernando VII.a.

San Bizenteren kasua desberdina da, gorpua berregin egin baitzuten. Horrelako irudiak osatzeko, hezurrak zeharkatzen zituen burdin-hari bat erabiltzen zuten eta, gero, metalezko sare bat jartzen zuten multzo osoari forma egokia emateko behar besteko bolumena har zezan. San Bizente eskuinaldera etzanda dago, eta erromatarren estiloko jantzi dotoreak ditu soinean. Hezurrak zuzenean agerian ez geratzeko, eskularruak ditu, sandaliak oinetan, eta aurpegia belo batez estalita du. Gorpua zuzenean Erromatik ekarri zuten Nuvillako elizara XVIII. mendearen amaieran, herriko seme Tomás Ortiz Landazuri Santiagoko zaldunak eskatuta. Independentzia Gerran, Frantziako tropak eliza

horretan kantonatu ziren 1808. urtean, eta orduan galdu zen gorpua benetakoa zela eta nondik zetorren adierazten zuen dokumentua. XXI. mendearen hasieran, tenplua abandonatuta geratu zelarik, santua Anuntzetako elizara eraman zuten, eta hantxe dago gaur egun.



Gerardo López de Guereñu – Cuerpo reconstruido de San Vicente, conservado en Anúcita [ATHA-DAF-GUE-233]
San Bizenteren gorputz berregina, Anuntzetan kontserbatua

Gerardo López de Guereñu – Cuerpo incorrupto de San Fausto, conservado en Bujanda [ATHA-DAF-GUE-823]
San Faustoren gorpu usteldu gabea, Bujandan kontserbatua.

SAN PRUDENCIO (IDAS Y VENIDAS DE UN CUERPO DESMEMBRADO)

SAN PRUDENTZIO (GORPUZATITUAREN ATZERA-AURRERAK)

Muchas han sido las desventuras que ha vivido el cuerpo del santo armentiense a lo largo del último milenio. Ya desde el siglo X los restos de San Prudencio comenzaron a dispersarse por distintos monasterios y templos desde su supuesto lugar originario de enterramiento, en Monte Laturce (Clavijo). Hasta finales del siglo XVI Vitoria-Gasteiz no contó con reliquia alguna a la que venerar, pero en 1580, el Doctor Zurbano, canónigo de la colegiata de Vitoria (actual Catedral de Santa María) y Vicario de la ciudad, acudió al Monasterio de San Prudencio en Monte Laturce a solicitar una reliquia del santo cuerpo para poder conservarla en la colegiata y aumentar así la devoción de los alaveses. Su visita fue descrita en los siguientes términos por Bernardo Ibáñez de Echávarri en la obra Vida de San Prudencio:

> El dicho Padre Abad abrió con el debido acatamiento la dorada Arca en que el dicho Cuerpo de Señor San Prudencio era, y sacó solo dos huesos del Santo Cuerpo, el uno del dedo pulgar, y el otro de la rodilla; y puestas en un cendal, y tafetán colorado se

> los entregó al Doctor Zurbano, encargándole encarecidamente la guarda, y cuidado de ellos, y que por la estima que se hace del Santo, se le haga a la entrada de la dicha Ciudad el recibimiento que se espera de su celo y piedad.

Los vitorianos, efectivamente, salieron a las afueras de la ciudad para recibir los restos, esperándolos frente al Convento de Santa Clara, y se premió a todos los asistentes con cuarenta días de indulgencia. A continuación, se celebró una procesión y repicaron todas las campanas de la capital en señal de bienvenida. Casi 250 años más tarde, en noviembre de 1829, Álava volvió a reclamar nuevamente una reliquia del santo. En esta ocasión, fueron las Juntas Generales quienes acordaron comisionar al diputado Diego de Arriola las diligencias necesarias para obtenerla. Por aquel entonces, las reliquias del santo habían sido ya trasladadas a Logroño desde Monte Laturce y, tras lograr el visto bueno del Obispo, un vecino de Logroño recogió "el sagrado Tesoro" bajo la verificación de un notario. Una nota publicada en el diario Euskal-Erria en 1899 daba cuenta del ceremonial:

> [Se dirigieron] a la Capilla (cuyo altar se hallaba iluminado al efecto) donde existen los restos de San Prudencio y habiendo abierto el arca que los contiene, con la veneración que se requiere, extrajo de ella un hueso caña del muslo (fémur) del que serró un trozo como de un palmo y lo colocó en el relicario construido a este fin, y sellado con el sello de su Señoría, fue entregado al apoderado de la Junta General de Álava.

EL INTENTO DE SECUESTRO DE SAN PRUDENCIO (1962)

Álava ha reclamado numerosas veces el cuerpo de San Prudencio, alegando que en su ubicación de Logroño no recibe demasiado culto. Con motivo del centenario de la diócesis, en

abril de 1962, el sarcófago con las reliquias fue traído a Vitoria-Gasteiz y, tal y como relató años más tarde José Maria Sedano, llegó a idearse un plan de secuestro por parte de un grupo de seminaristas que habían pensado hacerse con el botín cuando la urna se encontrase en la calle Magdalena, donde iba a descargarse del vehículo que la trajo de Logroño para colocarla en una carroza. Al parecer el rapto no llegó a buen puerto porque la arqueta fue velada fuertemente en todo momento, tras enterarse los acompañantes de las reliquias del osado plan.

Armentiako santuaren gorpuak gorabehera handiak jasan behar izan ditu azken milurtekoan. X. mendetik hasita, San Prudentzioren gorpuzkiak sakabanatzen hasi ziren ustez lurperatu zuten jatorrizko tokitik –Monte Laturce (Clavijo)– hainbat monastegi eta tenplutara. XVI. mendearen amaierara arte, Gasteizen ez zegoen erlikia bat bera ere gurtu ahal izateko, baina 1580. urtean, Zurbano doktorea –Gasteizko kolegiatako (gaur egungo Santa Maria katedrala) kalonje eta hiriko bikario zena– Monte Laturceko San Prudentzioren Monastegira joan zen gorpu santuaren erlikia bat eskatzera, kolegiatan gordetzeko eta arabarren mirespena areagotzeko asmoz. Bisitaldi hori honela deskribatu zuen Bernardo Ibáñez de Echávarrik Vida de San Prudencio obran:

> Aita abadeak mirespen handiz zabaldu zuen San Prudentzio jaunaren gorpua zegoen urre-koloreko kutxa, eta Gorpu Santuaren bi hezur baino ez zituen atera: bata erpurutik eta bestea belaunetik; eta ehun mehe eta garden baten eta tafeta gorri baten gainean jarrita, Zurbano doktoreari eman zizkion, eta eskatu zion arreta eta kontu handiz zaintzeko hezurrak, eta Santua estimu handitan zuenez, hirian sartzean behar besteko garraz eta errukiaz harrera egiteko.

Eta egia esan, gasteiztarrak hiriaren kanpoalderaino joan ziren gorpuzkiei harrera egitera; Santa Klara komentuaren parean egon ziren zain, eta bertaratu zirenek berrogei eguneko barkamena irabazi zuten. Jarraian, prozesioa egin zuten eta hiriko kanpai guztiak jo zituzten, ongietorria egiteko. Ia 250 urte geroago, 1829ko azaroan, Arabak santuaren beste erlikia bat eskatu zuen berriro. Oraingoan, Batzar Nagusiek erabaki zuten Diego de Arriola diputatuak egingo zituela erlikia hori lortzeko beharrezkoak ziren izapideak. Garai hartan, santuaren erlikiak Logroñora eraman zituzten Monte Laturcetik, eta gotzainak baimena eman ostean, Logroñoko herritar batek "altxor sakratua" jaso zuen notario batek egiaztatuta. 1899. urtean Euskal-Erria egunkariak honako hau argitaratu zen:

> San Prudentzioren gorpuzkiak zeuden Kaperara [joan ziren] (aldarea argiztatuta zegoen egun horretarako), eta gorpuzkien kutxa –merezi duen mirespenez– zabaldu ostean, izterreko hezur luze bat (femurra) atera eta arra beteko puska bat moztu zuen zerraz, eta horretarako egindako erlikia-ontzi batean ipini zuen; Gotzainaren zigiluarekin zigilatu ostean, Arabako Batzar Nagusietako ahaldunari eman zioten.

SAN PRUDENTZIO BAHITZEKO SAIOA (1962)

Arabak askotan eskatu izan du San Prudentzioren gorputza, Logroñon gurtza askorik ez duela jasotzen argudiatuta. Elizbarrutiaren ehungarren urteurrena zela-eta, 1962ko apirilean, erlikiak dituen sarkofagoa Gasteiza ekarri zuten eta, José Maria Sedanok zenbait urte geroago aitortu zuenez, apaizgai talde batek kutxa bahitzeko plana egin zuen, Madalena kalera iristen zenean; izan ere, kale horretan atera behar zuten kutxa Logroñotik ekarri zuen autotik, karroza batean jartzeko. Antza, plana ezin izan zuten burutu kutxa

zaintzapean egon zelako etengabe, erlikiaren zaintzaileengana iritsi baitzen plan ausart haren berri.

El sarcófago con las reliquias de San Prudencio a su salida de Logroño (27 abril 1962) [ATHA-DAF-DIP-3896]
San Prudentzioren erlikiak gordetzen dituen sarkofagoa, Logroñotik irtetzean (1962ko apirilak 27)

Santiago Arina y Albizu – Los restos de San Prudencio a su paso por la Cuesta San Francisco (28 abril 1962) [AMVG LFM-357_3(6)]
San Prudentzioaren gorpuzkiak San Frantzisko Aldapatik igarotzean (1962ko apirilak 27)

DIA DE TODOS LOS SANTOS Y DÍA DE LOS MUERTOS

SANTU GUZTIEN EGUNA ETA HILEN EGUNA

Aunque en los últimos años la popularidad irrefrenable de festividades de nuevo cuño como Halloween haya ensombrecido el sustrato cultural previo, muchas eran las costumbres vinculadas al día de Todos los Santos y a la noche que va del 31 de octubre al 1 de noviembre. En la memoria oral de varios pueblos de la provincia se recuerda que esas noches las ánimas del purgatorio andaban por la tierra pidiendo oraciones, razón por la cual la puerta de los templos permanecía abierta excepcionalmente durante todo el día. Y entre los más pequeños, en distintos puntos del País Vasco, se vaciaban y decoraban con velas calabazas a fin de asustar a los vecinos. Durante el día de Todos los Santos, en la misa mayor, se ofrendaban pequeños panecillos o tortas que eran finalmente repartidos entre los asistentes, priorizando al párroco, al sacristán y a los niños.

En Sáseta era creencia que el día de Difuntos las almas salían del purgatorio y a las doce de la noche daban doce vueltas alrededor del cementerio para después subir al cielo. Y en Galarreta, como recoge el Anuario Eusko Folklore del año 1921 y como tratamos de reproducir mediante esta re-

creación, tras rezar las vísperas la tarde del día 1 de noviembre acontecía la siguiente tradición:

> Desciende el cura debajo del coro. Allí está colocada una mesa cubierta con un tapete negro, adornado en las cuatro esquinas con figuras de calavera humana. Sobre la mesa se hallan cuatro candeleros y un crucifijo, y en el centro un hueso del brazo y otro de la pierna de un cadáver en forma de Cruz, y encima de ellos una calavera humana. Allí cantan un responso, y después va el cura por todas las sepulturas rezando responsos. Seguidamente rezan todos un Rosario y queda terminada la función.

"Una estrella fugaz es un alma que va del purgatorio al cielo" (dicho popular de Lagrán)

Azken urteotan festa berriak oso ezagun bihurtzen ari dira –Halloween, esaterako– eta aldez aurretik zegoen kultura-oinarria ezkutuan geratzen ari da, baina egia esan, Santu guztien egunarekin eta urriaren 31tik azaroaren 1era bitarteko gauarekin lotutako ohitura asko zeuden. Probintziako herri askotako ahozko memorian gogoratzen dute gau horretan purgatorioko arimak Lurrean hara eta hona ibiltzen zirela otoitz-eske, eta horregatik, salbuespen gisa, elizetako ateak zabalik egoten ziren egun osoan. Eta txikienen artean, Euskal Herriko toki askotan kuiak hustu eta kandelaz apaintzen zituzten, auzokoak izutzearren. Santu guztien egunean, meza nagusian, opil txikiak eskaintzen ziren ofrendan, eta azkenean bertaratu ziren guztien artean banatzen zituzten, parrokoari, sakristauari eta haurrei lehentasuna emanda.

Sasetan, Hilen egunean arimak purgatoriotik ateratzen zirela uste zuten, eta gaueko hamabietan hamabi bira ematen zituztela hilerriaren inguruan, gero zerura igotzeko. Galarretan, 1921. urteko Eusko Folklore Urtekarian jasota

dagoenez –gure erreprodukzio honen bidez adierazi nahi izan dugu– azaroaren 1eko arratsaldean bezperak errezatu ostean, honako ohitura hau zuten:

> Apaiza koroaren azpira jaisten da. Han mahai bat dago, tapiz beltz batekin estalita eta tapizaren lau ertzak giza garezurraren irudiekin apainduta daude. Mahai gainean lau zutargi eta gurutze bat daude, eta erdian, hilotz baten beso bateko eta hanka bateko hezur bana Gurutze forma eginez, eta haien gainean giza garezur bat. Han errespontsua kantatzen dute, eta gero, apaiza hilobi guztien artetik ibiltzen da, errespontsuak kantatzen dituen bitartean. Jarraian, denek batera Errosarioa errezatzen dute, eta hortxe bukatzen da dena.

"Izar iheskor bat zera da, purgatoriotik zerura doan arima bat" (Lagrango esaera).